

NIRE HERRIA

Kaixo, ni Andrea naiz eta nire herria Abarzuza da. Bostehun eta hamalau biztanle ditu, herri txikia da.

Ni Eguzki kalea, hamarrean bizi naiz. Nire ama, aita, anaiarekin eta ahizparekin bizi naiz. Gure txakurra Bobby ere gurekin bizi da.

Nire herriko leku garrantzitsuenak hauek dira: udaletxea, eliza, igerilekua, frontoia, parkea, osasun etxea, jatetxea, taberna, botika eta eskola.

Iker okinak, inguruko herrietara ogia furgonetan eramaten du, Maitane medikua oso jatorra da eta Ane botikaria oso alaia da gurekin.

Gehien gustatzen zaidana, mendia da. Familiarekin joaten naiz eta asko erlaxatzen naiz.